

Kalitatezko suhiltzaile zerbitzua Tolosan

Gipuzkoako Foru Aldundiak suhiltzaileen zerbitzua modernizatzeko eta egonkortzeko "Gipuzkoa 20-30" bide orria finkatu du txosten batean.

Gipuzkoa eta osatzen duten herriak asko aldatu dira azken hamarkadetan, eta suhiltzaileen zerbitzuak ere izan du bere garapena. Errepideak, suteak, bizi leku aldaketak, enpresen egoerak eta abar. Aldagai horiek guztiak kontuan izanda, 80ko hamarkadatik indarrean zegoen zerbitzua berpentsatzea eta birmoldatzea derrigorrezko kontua zen.

Lanketa hori guztia gauzatzeko ezinbestekoak izan dira datu estatistikoak, zerbitzuaren beraren bilakaera eta, batez ere, suhiltzaileen parte hartzea.

Zerbitzu horrek duen garrantziaz jabetuta, beharrezkoa zen agente guztien parte hartzea diseinu eta garatu beharreko ekintzetan. Hori hala izanda, denen ideiak eta gogoetak izan dira kontuan, eta orain dela gutxi Gipuzkoako Batzar Nagusietan babestutako dokumentuak jasotzen ditu horiek guztiak.

Gipuzkoa 20-30 egitasmoak lurralde osoan suhiltzaileen zerbitzua hobetu eta eraginkorrago egingo du, ekintza eta ekimen guztiak finkatuta baitaude. Giza baliabide gehiago, eraikuntza egokiagoak eta inbertsio handiagoak ekarriko dizkio lurralde osoari, bizilekua edozein dela ere.

1.- Tolosako osoko bilkurak bat egiten du suhiltzaileen zerbitzua hobetzeko burutu den Gipuzkoa 20-30 dokumentuarekin.

2.- Tolosako osoko bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio suhiltzaileen zerbitzuak udalerrian kalitatezkoa izaten jarraitu dezala eta aurreikusita dauden hobekuntza guztiak burutu ditzala.

3.- Tolosako osoko bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, dokumentuan aurreikusita dagoen bezala, giza baliabide gehiago jartzeko hots 6 persona txandako, horretarako, zerbitzuan adierazi diren Lan Eskaintza Publiko berriak egitea ahalik eta azkarren.

Tolosa, 2019ko urtarrilak 29

EAJ UDAL TALDEA

EH BILDU